

ZORIONAK

!!! MENDIZALE GAZTETXOEI!!!

Ikustekoa izan zen aurten ere, neska-mutiko hauen poza, zenbait ibilaldi osatuz gero, Mendi Lehiaketan "finalista" suertatu zirenean, txokolatejan eder baten ondorenean bere domina jaso zuten Ekainaren 18ko arratsalde hartan.

Hauek dira batzaz beste aurten antolatu diren ibilaldiak:

ALLERRU (547 m.) Agindutako egunean egin ez bazen ere, Torreoi bat ezarria dago buzoi bezala.

ANDATZA (562 m.) Usurbiletik-Zizurkilera. (Zaldi gainean ibiltzeko aukera izan zen).

ARTXURIA-PEÑA PLATA (756m.) Etxalarretik Zugarramurdira. Bertan Leize zuloak ikusi genituen.

PAGOETAKO GURUTZEA (714 m.) Lurgainetik Aiara. Burdinola kanpotik ikusi genuen.

GUARDAETXE (ARALAR) - LARRAITZ: Ausartenak TXINDOKI(1.346m.) igo zutelarik.

HIRU INTXORTAK (737 m.) Elgeta. Azken gerratean oso famatuak izan ziren mendiak, bertan dagoen harri zahar batek dioen bezala: "Hemen gera eben Euskadik etsaia".



MURUMENDI (859 m.) Beizamako Santa Ageda auzotik abiatu eta Beasainera. Eguraldi ona egin zigunez, Murumendiko Dama (Mari) ikustea ezinezkoa izan zitzaigun, laino tartean orrazten bait oi ditu bere ile luzeak.

AZKARATE-ALTZO: Aralarko Mailoak miresteko aukera ezin hobea. Hemen ere ausartenak ertzetik joan eta OTSABIO (801 m.) mendian txarteltxoak bota zuten.

UREPEL (LEITZARAN) (1.056 m.) Autobide berria estreinatuz eginiko ibilaldia. Nahiz gogor xamarra iruditu batzuei, azkenerako denok pozik jeitsi ginen LEITZARA ohizko pelota partidua jokatzera.

ADARRA (811 m.) Denok ezagutzen dugun mendi erraza eta ederra. Erraza, Besabitik igota noski.

AIZKORRI (1.528 m.) Gipuzkoako mendirik garaiena.

ZONALDEKO IBILALDI NEURTUA. Lezon ospatu zen dakizuen bezala.

Dominak lortzeko gutxienez egin beharrezko lanak bete dituzten MENDIZALE AUSARTAK HAUEK IZAN DIRA:

- | | |
|---------------------------------|-------------------------|
| ▶ IMANOL GONZALEZ DEL SOL | ▶ AITOR SEIN ETXABE |
| ▶ IBAN LEDESMA NICOLAS | ▶ BEÑAT SEIN ETXABE |
| ▶ LARRAITZ HARANBURU SALABERRIA | ▶ MAITANE SEIN REZOLA |
| ▶ IRATZE ETXEBESTE ORMABERA | ▶ ION ALFARO CAMPOS |
| ▶ HAIZEA ETXEBESTE ORMABERA | ▶ UNAI IRASUEGI ARISTI |
| ▶ HARITZ ALFONSO PUY | ▶ BEÑAT EIZAGIRRE |
| ▶ MAIALEN ESNAOLA MAUDES | ▶ MIKEL VILLANUEVA SOTO |
| ▶ ANE ARBILLAGA | ▶ EDURNE SALABERRIA |

AIPAMEN BEREZI bat egin diogu aurten IBILALDI GUZTIAK eta DAGOZKIEN GAILURRAK EGIN DITUEN BAKARRARI: IMANOL GONZALEZ DEL SOL. ZORIONAK.

Beste zenbait atetan geratu zaizkigu bainan zalantzarik ez dugu datorren ikastaroan lehenak izango direla izena ematen.

ZORIONAK BADA GUZTIOI ETA EA DATORREN IKASTAROAN ERE HONELAKO IBILALDI EDERRAK EGITEKO GAUZA GAREN.

ALLERRU MENDI TALDEA (LEZO)

HAURREN GURASOEI DEIALDIA!

Hamaika aldiz entzuten eta hitzegiten dugu gure artean, gure hurrek zenbat telebista ikusten duten etabar. Hona hemen bada aukera bat ikastaroaren zehar igande batzutan gurekin egun pasa joateko.

Garrantzizkoa zaigu ikastaroaren hasieran IZEN ABIZENAK eta JAIOTEGUNA ematea LEHIAKETAN PARTE HARTU AHAL IZATEKO, INONGO KOSTORIK GABE FEDERATU EGITEN BAIT DITUGU (Asegurua). Autobusaren prezioa 400 Ptakoa izaten da haurrentzat UDALAREN laguntzari esker. Finalista izan ahal izateko 6 ibilaldi eta IBILALDI NEURTUA derrigorrezkoa dute. Eta zenbait mendiren izenak bildurtzen bazaituzte, lasaitu, haurrak gu baino hobeto ibiltzen dira eta. Ikastaroaren hasieran ibilaldien programa banatuko dugu bai eskolatan eta herrian eta bildurrik gabē izena eman. Probatzen duenak ez du damurik oraindano eta. Animatu zuen haurrak katarro eta griperen kontrako txerturik hoberena haize prexkua hartzea izaten da eta. Eta nola ez bada, zuek ere gonbidatuak zaudete.

